



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Euskararen
erakunde
publikoa

Office public de
la langue basque

Prentsa oharra

**Euskararen Erakunde Publikoa eta Eusko Jaurlaritzaren
arteko lankidetzaren kari, 2025ean euskararen alorrean
diharduten eragile pribatuak sustatzeko hartu erabakiak**

2025eko lankidetzarako fondoa

(Hitzarmenez lotu eragileak eta hizkuntza jarduera proiektu deialdia)

Baiona - 2025eko ekainaren 30ean

Baiona, ekainaren 30a

Euskararen Erakunde Publikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Gobernuaren arteko hizkuntza politikaren alorreko mugaz gaindiko lankidetzaren esparruan, Ipar Euskal Herriko eragile pribatuei laguntzeko lankidetzak funts komuna osatzen da urtero 2007tik honat. 1.930.000 €-ko fondo hori, EEPk (1.530.000 €) eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (400.000 €) elkarrekin osatzen dute.

Sustatutako alor guzietan eta aitzineko urteetan engaiatu ekintzen ildoari jarraikiz, EEP eta Eusko Jaurlaritzak aurten ere lehentasunezko sostengu ekonomiko eta tekniko adierazi nahi diete hizkuntza politikaren egituratzaile diren eragileei, bai eta euskarazko eskaintza iraunkorra egituratu dutenei ere, euskara transmititzeko, ikasteko, praktikatzeko eta hedatzeko molde eraginkorrean eta egonkorrean lan egiten baitute. Laguntza hori, hizkuntza jardura proiektu deialdiaren bidez ere bideratzen da, euskararen erabilera eta sustapenerako dinamikak sortu eta indartzeko funtsezkoa den tresna baita deialdia, izan proiektu berriak edo jarraipen logika batean diren jardueren laguntzeko.

I. Lankidetzak esparrua

2007tik formalizatutako lehenagoko hitzarmenen jarraipenean, Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikaren alorreko mugaz gaindiko lankidetzak-esparrua 2025ean berritu dute 2025-2029 epealdirako, joan den apirilaren 4an Baionan izenpetu zena.

Esparru-hitzarmen hori, urtero eranskin bidez deklinatzen da, urteko lana eta Iparraldeko eragile pribatuei zuzentzen zaien diruztapen era zehatzuz, bi instituzioek elkarrekin elikatzen eta osatzen duten lankidetzarako fondoaren bidez. Aurten ere beraz, EEPk eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eragile pribatuek eramandako euskararen erabilpena eta transmisioa sustatzen dituzten proiektuak elkarrekin diruz laguntzea erabaki dute. Horretarako, 2025ean, lankidetzarako fondoak berriaz eratu eta egonkortu da, 1.930.000 € ekarri orotara (ikus, II. puntua), bi partaideen ekarpenez.

II. Lankidetzarako fondoak

2025eko, Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak eragile pribatuentzat osatu **lankidetzarako fondoak 1.930.000 €-koa da** (2017tik hein berekoa), bi partaideen ekarpenez:

- Euskararen Erakunde Publikoak: **1.530.000 €**,
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak: **400.000 €**.

Lankidetzarako fondo hori bi dirutza multzotan banatua da:

- **1.793.500 €**-ko dirutza multzoa: Euskararen Erakunde Publikoa eta Eusko Jaurlaritzaren arteko sustapen-lerroekin bete betean datozela ikusita, Ipar Euskal Herriko 14 eragile jakin, urte edo urte anitzeko **hitzarmenetan** oinarriturik diruztatzen dira.
- **136.500 €**-ko dirutza multzoa: Ipar Euskal Herriko beste hainbat eragile pribaturi zuzenduko zaio **hizkuntza jardura proiektu deialdiaren** bidez. Orohar, beste eragile pribatuak diruztatzen dira.

III. Dirulaguntza eskaeren trataera

Euskararen Erakunde Publikoko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako zerbitzuek, eragile pribatuak (izan elkarte edo enpresa) helarazi eskaera guziak banan-bana aztertu dituzte, aitzinetik finkatu ziren eta eragileei azaldu zitzaizkien **4 irizpide nagusien** arabera:

- Proiektuaren kalitatea (egingarritasun teknikoa eta finantzarioa, helburu eta modalitateen koherentzia Proiektu estrategikoaren printzipio eta lehentasunekiko, proiektuaren eredugarritasuna)
- Proiektuaren eragina euskararen transmisioan edota erabileraren garapen iraunkorrean
- Aurreikusitako proiektuaren ebaluazioa, proposatutako helburu eta neurketa-adierazleen arabera (gauzatze-adierazleak, emaitza-adierazleak, eragin-adierazleak)
- Proiektu eramailearen ibilbidea, haren jardueraren ezagutza

IV. Esleipen erabakiak

Euskararen Erakunde Publikoaren Biltzar Nagusiak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, burutu azterketaren ondotik, jarraian zehaztutako erabakiak hartu dituzte:

IV.1. Beren jarduera linguistikoaren sustatzeko xedez, hitzarmenez lotutako eragile jakinak diruz laguntzea (1.793.500 €)

→ **496.000 €** (= 2024) emanen dira **euskarazko irakaskuntzan** lanean diharduten honako eragileen sustatzeko:

- **Seaska federazioa** (Ikastolen federazioak 38 ikastetxe biltzen ditu: lehen mailan 33 eskola, 2. mailan 4 kolegio eta lizeo polibalente bat, orotara 4.300 ikasle hurbil eskolatzen ditu Seaskak ama-eskolatik lizeoraino): **405.000 €** esleituak federazioa sostengatzeko euskararen erabilpena eta transmisio laguntza-ekintzetan (besteak beste eskolatik kanpo euskararen erabilpena sustatzeko helburua duten jarduerak, komunikazioa eta sentsibilizazioa, irakasleen hasierako eta etengabeko formakuntza, laguntza pedagogikoa, hezitzaileen eta irakasleen kontratazioa eta kudeaketa, kontabilitate eta giza-baliabideen kudeaketarako laguntza ikastolentzat...).
- Irakaskuntza elebiduneko buraso elkarteak, sare publiko zein pribatuan euskarazko irakaskuntza sustatzeko:
 - **Ikas-Bi** (sare publikoko irakaskuntza elebiduneko buraso elkarteak): **40.000 €** Ikas-bik burutzen dituen irakaskuntza elebidunaren sustapen lanen laguntzeko, 2015an finkatu esparru-hitzarmenarekin koherentzian, bertan Ikas Bi eta EEPren arteko partaidetza modalitateak zehaztuak baitira, Ikas Bi elkarteak irakaskuntza publikoan irakaskuntza elebidunaren sustapen eta jarraipen lanak bideratzeko, EEPn bilduak diren botere publikoek eraman politika publikoaren osagarri gisa: irekitze eta murgiltze proiektuei laguntza, euskararen erabilera eta irakaskuntza elebidunaren alde burasoak laguntzea, familiei informazioa eta sentsibilizazioa, eskola jarraipena etab.

- **Biga Bai** (sare publikoko irakaskuntza elebiduneko buraso elkarteak): **23.000 €** Biga Bai elkarteak sare publikoko eskola eta ikastetxeetan burutzen dituen irakaskuntza elebidunaren sustapen eta jarraipen lanak laguntzeko, EEPn bilduak diren botere publikoek daramaten politikaren osagarri gisa:

irakaskuntza elebidunaren sustapena (burasoei informazioa eta komunikazioa...), irakaskuntza elebidunaren eskaintzaren garapena eta egituratze kualitatibo lanetan parte hartzea (irekitze eta murgiltze proiektuak, eskola jarraipena), irakaskuntza elebidunaren defentsan burasoen ordezkatzeko eta euskararen erabilpena sustatzen duten proiektuen muntatzeko talde pedagogikoen akuilatzea.

- **Euskal Haziak** (sare pribatu girstinoko irakaskuntza elebiduneko buraso eta irakasle elkarteak): **28.000 €** irakaskuntza pribatu katolikoan irakaskuntza elebidunaren sustapenerako eragileak eramaten duen proiektua laguntzeko, Irakaskuntza Katolikoaren Elizbarrutiko Zuzendaritzarekin (IKEZ/ DDEC) lotua: irakaskuntza elebidunaren eskaintzaren garapenaren eta egituratze kualitatibo lanetan EEP eta IKEZekin batean parte hartzea, irakaskuntza elebidunaren sustapenerako ekintzak (ate irekien antolaketa, komunikazioa), euskararen erabilera sustatzen duten ekintzak (antzerki astea ikastetxeen artean, literatura lehiaketa, ateraldiak eta gertakariak...).

→ **520.000 € (= 2024) helduen irakaskuntzarako:**

- **AEK** (helduei zuzendutako euskararen irakaskuntzarako formakuntza zentroen federazioa): **520.000 €** AEK-k burutu helduei zuzendutako norbanakoaren formakuntza alorrean diren irakaskuntza jardueren diruz hobeki laguntzeko: lurralde guzian hedatuak diren 14 gau eskolei laguntza eta aholkularitza tekniko eta pedagogikoa (formatzaileen kontratazioa eta kudeaketa, formatzaileen formakuntza, didaktika, ikasleen jarraipena...), ikastaldi trinkoen antolaketa, sentsibilizazio kanpainak.

→ **529.500 € (= 2024) emanen dira 6 hedabideren sustatzeko:**

- **Euskarazko irratia sarea:** 2023-2025 epealdirako, Euskal Irratiak, Irulegiko Irratia, Entzun Ikus, Xiberoko Botza, Antxeta Irratia eta EEPren artean adostu urte anitzeko helburu eta baliabide hitzarmenaren arabera, 2025 urterako, euskarazko irratia sareari 310.000 €-ko dirulaguntza esleitu zaio, egituren artean honela banaturik:
 - **Euskal Irratiak:** 235.000 € Ipar Euskal Herri lurralde mailako irratia-programazioentzat ekoiztuak eta hedatuak diren euskarazko berri sailentzat eta programentzat, bai eta sare buru funtzioak segurtatzeko ere, estrategia digitala garatzeko eta tokiko irratiei laguntza administratiboa emateko.
 - **Tokiko irratia:** Irulegiko Irratia 25.000 €, Entzun Ikus 20.000 €, Xiberoko Botza 15.000 € eta Antxeta Irratia 16.050 €, bakoitzaren tokiko irratia edukien ekoizpena laguntzeko eta hedatzeko, baita Ipar Euskal Herri lurralde mailako programazioaren edukien ekoizpenerako, Euskal Irratiak-ekin elkarlanean.

- **Aldudarrak Bideo:** Aldudarrak Bideo eta EEPren artean adostu 2025-2027 epealdirako helburu eta baliabide hitzarmenaren arabera, 2025 urterako, Aldudarrak Bideo kooperatibari **80.000 €**-ko dirulaguntza esleitu zaio, publiko guzientzako programen (erreportaiak, magazinak, emankizunak eta bestelako grabaketak) ekoizteko eta zabaltzeko (Eskualdeko Helburu eta Baliabide Hitzarmenaren bidez sorturiko programen osagarri gisa), hedapen-sareen plantan emateko edo esperimenezkoen jarraitzeko, banaketa-sareetan Kanalduderen ikusgarritasuna hobetzeko helburuarekin (telebista konektatuarentzat aplikazioak...) eta azkenik, katearen komunikazio estrategia egituratzen segitzeko.
 - **Herria: 48.500 €** harpidetza bitartez edo kioskoetan banatua den euskarazko astekaria ekoizteko eta argitaratzeko.
 - **Euskal Komunikabideak: 28.000 €** Iparraldeko Hitza, astekari berezitua ekoizteko eta argitaratzeko. Astekaria Berria egunkariaren harpidedunei banatzen zaie, kioskoan zuzenean edota harpidetza berezi baten bidez.
 - **Iparla Baigura Komunikazioa (kazeta.eus): 33.000 €** kazeta.eus webgunerako euskarazko edukiak sortzeko.
 - **Errobi Promotions: 30.000 €** radiokultura.eus web irratan zabaldutako euskarazko irrati saioen ekoizteko. Ekoizpenak internetez hedatuak dira, baita hertziar bidez, beste irratiarekin burututako partaidetzen bitartez (bereziki Euskal Irratiak-en bitartez) edo programa-bankuen bidez.
- **244.000 € (= 2024) emanen dira** azken urte hauetan garapen handia izan duten aisialdi alorreko jardueren sustatzeko:
- **Bertsularien Lagunak** (bertsolaritzaren irakaskuntza eta sustapenerako elkarteak): **65.000 €** lurralde guzian bertso eskolek eramaten duten bertsolaritzaren irakaskuntzaren sustengatzeko (eskolaz kanpoko jarduerak, bertso saioak eta txapelketa izan ezik), orotara 280 ikasle inguruk parte hartzen dute 34 taldetan banaturik.
 - **Uda Leku** (euskarazko aisialdi eta egonaldi zentroak): Uda Leku eta EEPren artean adostu 2025-2027 epealdirako helburu eta baliabide hitzarmenaren arabera, 2025 urterako, **179.000 €** dirulaguntza esleitu zaio, eragileak antolatu euskarazko aisialdi jarduerak sustengatzeko (4 bilguneetan edo egonaldietan), bai eta eragilea sendotzen laguntzeko ere (bilgune berrien irekitzeko urraspideen jarraipena eta finantzaketa arrunten optimizatzeko lanak, besteak beste).
- **4.000 € bizitza sozialaren alorrean:**
- **UEU:** 4.000 € Udako Euskal Unibertsitateen antolaketaarako

IV.2. Hizkuntza jarduera proiektu deialdia (136.500 €)

Hizkuntza jarduera proiektu deialdiari dagokionez, ezarri den diru multzoa 136.500 €-koa da. Orotara, 29 eragileek 45 proiektu aurkeztu dituzte (2024an 27 eragilek pausatu 44 proiektu izan ziren).

Dirulaguntzen esleipena honela egituratzen da (prentsa ohar honen bukaeran den lehen eranskinak proiektu bakoitzari esleitu dirulaguntzak zehazten ditu):

- **Lehen haurtzaroko harreraren arloan:**

- Euskarazko harrera egiten duten lehen haurtzaroko eragileei, euskarazko tailerrak antolatzeko kanpoko parte hartzaileei dei eginez:
 - Azkaingo **Kilima haurtzain etxea**: « 0-3 urteko haurrei eta haien familiei zuzendutako euskarazko ekintzen diruztatzea »
 - Angeluko **Xoko Ttipi haurtzain etxea**: « Nini irakurle tailerrak » proiektuarentzat

- **Helduen euskalduntzearen arloan:**

- Helduentzako euskarazko ikasgaiak eskaintzen dituzten eragileak:
 - **Angeluko Ikasleak**, helduen formakuntzan Angelun eskaintzen dituen jarduerentzat
 - **Jakinola**, euskara ikasten ari direnentzat hizkuntzaren praktika bultzatzen duten aktibitateen antolatzeko: «Mintzapraktika»” proiektua.

- **Bizitza sozialaren arloan:**

- Euskararen erabilpenaren garapena eta sent sustatzen duen jarduera bat egituratu duten eragileak:
 - **Euskal Moneta**, bere kideak (enpresa eta merkatariak) afixatze elebiduna plantan ezartzen laguntzeko jarduerarentzat
 - **Plazara** : elkartearen jardueraren egituraketa eta garapenerako

- **Irakaskuntza artistikoa eta kirol arloetan:**

- Beren formakuntza jardueretan Euskarazko eskaintza egituratu duten eragileak:
 - **Oreka** zirko eskola, euskarazko zirko tailerrak antolatzeko

- **Hedabideen arloan:**

- Beraien frantseseko programazioan euskarazko eskaintza integratu duten hedabideetako eragileak: **TVPI** eta **Iparla Baigura Komunikazioa** (Mediabask proiektuarentzat)
- Gazteek gazteentzat eduki mediatikoak ekoizteko eta sare sozialetan edo Interneten bidez zabaltzeko 2022an sortu hedabidea : **Gaztekom** («Bada»)

- **Argitalpen alorrean** (laguntzak 3 lerro ezberdinetan esleitzea aurreikusten duena: liburuen argitalpena, promozio eta merkaturatze lanak, animazio pedagogikoak):
 - 21 argitalpen proiektu (argitaratze proiektuentzat, hizkuntzaren kalitateari dagokionez, Euskaltzaindiak karia horretara osatu lan-batzordeak eman iritzienaren baldintzapean):
 - Euskarazko 19 argitalpen proiektu: dirulaguntzak, hautagarriak diren gastuen % 40ean
 - 5 argitalpen proiektu elebidun: dirulaguntzak, hautagarriak diren gastuen % 55ean mugatuz
 - Proiektu bat animazio pedagogiko lerroan: 1.000 €-tan mugatua den laguntza (Libreplume)
 - Proiektu bat euskal haur literatura bitartekaritza eskaintzeko : 2.000 € (Haria)



Lehen eranskina: 2025. urteko hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren kariatara, proiektu bakoitzari emandako laguntzaren xehetasunak

Les projets qui bénéficieront d'une aide financière Diru-laguntza jasoko duten egitasmoak		
Opérateur Eragilea	Titre du projet Proiektuaren izenburua	Subvention Diru-laguntza
MAM Kilima	Activités d'éveil en langue basque proposées aux familles des enfants de 0 à 3 ans 0-3 urteko haurrei eta haien familiei zuzendutako euskarazko ekintzen diruztatzea	1 428 €
MAM Xoko ttipi	Atelier bébé lecteur Nini irakurle tailerrak	1 036 €
Angeluko Ikasleak	Enseignement de la langue basque aux adultes Helduei bideratutako Euskararen ikaskuntza	4 500 €
Jakinola	Séances de conversations Mintzapraktika	2 500 €
Euskal Moneta	Développement de l'affichage bilingue dans les commerces du réseau Eusko Eusko sareko saltegietan afitxaketa elebidunaren garatzea	16 000 €
Plazara	Aide au fonctionnement de l'association Elkartearen funtzionamendurako laguntza	10 000 €
Oreka	Le cirque en basque Zirkoa, euskararen eragile	13 500 €
TVPI	TVPI aux côtés de l'euskara TVPI euskararen alde	29 000 €
Iparla Baigura Komunikazioa	Mise en valeur de l'euskara dans Mediabask Euskararen balorizazioa Mediabasken	5 000 €
Gazte Kom	Bada (média pour et par les jeunes) Bada (gazteek gazteentzat sortu hedabidea)	18 000 €

Les projets qui bénéficieront d'une aide financière (volet édition) Diru-laguntza jasoko duten egitasmoak (argitalpen atala)		
Opérateur Eragilea	Titre du projet (selon formulation par l'opérateur) Proiektuaren izenburua (eragileak izendatuta)	Subvention Diru-laguntza
Artodance	Edition de l'ouvrage "Titu, abiadura maite zuen dortoka" "Titu, abiadura maite zuen dortoka" liburuaren argitalpena	1 373 €
Elkar	Edition de l'ouvrage "Erantzunen bidaia" "Erantzunen bidaia" liburuaren argitalpena	1 813 €
	Edition de l'ouvrage "Goazen oihanera" "Goazen oihanera" liburuaren argitalpena	2 027 €
	Edition de l'ouvrage "Ilunpetik argira - Ihauteriak Euskal Herrian" "Ilunpetik argira - Ihauteriak Euskal Herrian" liburuaren argitalpena	4 185 €
Euskaltzaleen Biltzarra	Edition de l'ouvrage "Gizatasun arrantzale" "Gizatasun arrantzale" liburuaren argitalpena	1 702 €
	Edition de l'ouvrage "Baiguratik Lapurdira" "Baiguratik Lapurdira" liburuaren argitalpena	488 €



Les projets qui bénéficieront d'une aide financière (volet édition) Diru-laguntza jasoko duten egitasmoak (argitalpen atala)		
Opérateur Eragilea	Titre du projet (selon formulation par l'opérateur) Proiektuaren izenburua (eragileak izendatuta)	Subvention Diru-laguntza
Haria	Offre de médiation en littérature jeunesse en langue basque HARIA esuskarazko haur liburu mediazio zerbitzua	2 000 €
	Edition de l'ouvrage "Lotto" "Lotto" liburuaren argitalpena	1 790 €
	Edition de l'ouvrage "Erreka bezala mintzo naiz" "Erreka bezala mintzo naiz" liburuaren argitalpena	1 917 €
	Edition de l'ouvrage "Uretara" "Uretara" liburuaren argitalpena	1 846 €
	Edition de l'ouvrage "Aita mendia" "Aita mendia" liburuaren argitalpena	1 826 €
Hatsa	Edition de l'ouvrage "Hatsaren poesia 2025" "Hatsaren poesia 2025" liburuaren argitaratzea	2 071 €
Herrima	Edition de l'ouvrage "Euskara eta biok - Jalgi hadi mundura" "Euskara eta biok - Jalgi hadi mundura" liburuaren argitalpena	1 540 €
	Edition de l'ouvrage "Nafarroa - Estatu baten kronika geopolitiko" □ "Nafarroa - Estatu baten kronika geopolitiko" liburuaren argitalpena	1 506 €
Libreplume	Animations pédagogiques "Zoom sur auteurs et autrices avec rencontres" "Idazleak argitan" animazio pedagogikoak	1 000 €
Maiatz	Edition de l'ouvrage "Txomin Peillen, olerkiak" "Txomin Peillen, olerkiak" liburuaren argitalpena	225 €
	Edition de l'ouvrage "Solas gordeak" "Solas gordeak" liburuaren argitalpena	500 €
	Edition de l'ouvrage "Palimpsestoa" "Palimpsestoa" liburuaren argitalpena	640 €
	Edition de l'ouvrage "Hegiz hegi" "Hegiz hegi" liburuaren argitalpena	400 €
Matahami	Edition de l'ouvrage bilingue "L'imagier des animaux" "Animalien iruditegia" liburu elebidunaren argitalpena	472 €
Onoko	Edition de l'ouvrage bilingue "Euskal mitologiako pertsonaiak deskubritu - 1" "Euskal mitologiako pertsonaiak deskubritu - 1" liburu elebidunaren argitalpena	984 €
	Edition de l'ouvrage bilingue "Euskal mitologiako pertsonaiak deskubritu - 2" "Euskal mitologiako pertsonaiak deskubritu - 2" liburu elebidunaren argitalpena	984 €
	Edition de l'ouvrage bilingue "Hiru uhinak - Les trois vagues" "Hiru uhinak - Les trois vagues" liburu elebidunaren argitalpena	951 €
	Edition de l'ouvrage bilingue "Le pont de Lick - Ligiko zubia" "Le pont de Lick - Ligiko zubia" liburu elebidunaren argitalpena	951 €
Sü Azia	Edition de l'ouvrage "Denetarik" "Denetarik" liburuaren argitalpena	1 712 €
	Edition de l'ouvrage "Lehenago Gameren" "Lehenago Gameren" liburuaren argitalpena	633 €
TOTAL OROTARA		136 500 €